


Ermuko eta Mallabiko

Ez daukagu inguruan itsasorik, Deba edo Ondarroara joan ezean behintzat ez, baina hala ere, bada gurean itsasoa ezinbesteko duen kirol baten zaletu talde bat, surflariena hain zuzen. Bi koadrilarekin izan gara, bata Ermukoa, Mallabikoa bestea. Badira hauez gain, banakako beste zenbait zaletu baina talde haundiena bi hauek osatzen dute.

Ermuko koadrila, bost gaztek osatzen dute. Guztiak eskola garaitik elkarrekin ibilitakoak, 16 urte inguru dituzte. Taldean, Iñigo Gurruixaga, Haritz Muñoa, Denis Saiz, Asier Mas eta Mikel Lopez aritzen dira. Haritz Muñoa da taldetik surfa egiten duen bakarra, gainontzekoek body-board egiten dute. Zarautzeko hondartzara joaten dira gehienetan nahiz eta Debara ere joan izan diren. Uztailean hasten dira eta urria bitartean, ahal duten gehienetan joaten direla aitortzen dute. "Kirol garesti samarra da hau, jantziak, bidaiak..." aitortzen du Iñakik. Bigarren eskuko taulak eta jantziak lortzeko aukera zabala dagoela onartzen dute. Haritz oso gazte hasi bazen ere, ikastaro bat egin eta apurka-apurka hobetzen doala azpimarratzen du. Udazken eta negu aldera izaten dira olatu onenak eta hortan, Mundakako hondartza dela nagusi aipatzen dute eta benetan penagarria dela



surf zaleak


olatuak galdu izana. Kanpoko jende asko izaten da Zarautzen, "Alemaniarrak, Ingleesak... atzeritar asko eta batipat Zarautzarrak izaten dira", dio Denisek. Itsasoari beldurrik ez baina "errespetoa, hori bai", gaineratzen du Asierrek. Hasierako unek izaten omen dira gogorrenak. Dena den, kontuz ibili beharra dago; Mikelek esualdiren bat ere pasa omen zuen heriotza ere gertu ikusi zuela onartzen du. Etxekoek ere "kezka" ikusten omen dute berak kirol hau egitea baina hala ere ez da beste edozein kirol baino arriskuetsuagoa. Arlo fisikoa ere dezente landu behar da, batipat zangoetan izan behar da indarra "olatuaren indarra gaintzeko". Etorkizunean ere jarraitu nahiko lukete, "diru asko irabazteko aukera dago eta diru asko mugitzen da surfean", gaineratzen dute guztiak. Teknologia berriak ere iritsi dira surfera, internet bitartez jakiten baitute olatuen egoera, etxetik bertatik mugitu gabe.

Mallabiko koadrila, haundiagoa da, adinez ere helduagoa. Taldeko kide guztiak ez dira Mallabiarak, Ermuarrak ere badira tartean. Taldea, Mikel Totorika, Jon Unanue, Endika Abaskal, Xabat Areitioaurtena, Iban Goiogana, Gorka

Arellano, Josu Uribelarrea eta Jose Luis Alonso "Porris"ek osatzen dute. Hauek ere Zarautzera joateko ohitura dute nahiz eta Getaria, Laga edo Ispastererra ere joaten diren. "Bidaietan diru asko joaten da", dio Mikelek. Urte osoan zehar joaten dira nahiz eta Jonek esaten duen moduan, udazken eta neguan joaten diren batez ere. Estualdiren bat edo beste gertatu izan zaie. Larriena, Endikak pasatakoa: "Getarian larri ibili nintzen behin batean. Beñat Ugartetxea eta hondartzako sorrosleei eskerrak nago bizirik... itsasoak barrurantz bultzatzen ninduen eta ezin irten ibili nintzen".

Surflari ona izateko pisu arina, oreka, eta indartsua izatea komeni dela diote. Sekula ez dute joan diren hondartzetan arazorik izan nahiz eta Zarautzen "herritarrenzat bereizitako gunek dauden eta halakoetan ez da erreza izaten taula sartu eta olatuak lapurtzea", aipatzen du Xabatek. Geroz eta zaletu gehiago dago "modan dagoen kirola da surfa dudarik gabe", aitortzen du Mikelek. Kirol dendetan ohikoa da surfeko ekipoa eta arropak aurkitzea, aipatutako esaldiaren erakusle argia dena zalantzarik gabe.

Asier Ibaibarriaga



URRETA burdindenda

- * Etxea
- * Tresneria
- * Brikolaia
- * Rielak
- * Giltzak
- * Zerrailgintza
- * Kit altzariak

Zeharkalea 8 Tel: 943 17 65 61 ERMUA

ELUR

ESTETIKA-EDERGINTZA

- Depilazioa
- Elektrologia
- Gorputz eta Aurpegiarako tratamenduak
- Masajeak
- Pedikura
- Manikura (parafinarekin)
- Solariuma

Aldapa 1 943 17 60 52

MALLA

ileapaindegia

Prabaleku 8, behea 943 17 18 50

KAFETEGIA XAGUA

Zubiaurre kalea, 23 behea